



XIX. azken mende laurdenean eta mende honen hasieran gertatutako meatzal ustiakuntza trinkoak zenbait meatzal auzo eta herrien agerpena ekarri zuen, hauen artean La Arboledakoa bereziki (1877.ean sortua).

Triano mendietako auzoak, Bizkaiko eta kanpoko zenbait lekutatik etorritako langileen kopurua handituz joan zen neurrian eraiki ziren. Meatzal konpainiek eta meatzariak inguruko lurraldeak kolonizatuz joan ziren, eta modu horretan, mende hasierarako goiko aldeko biztanlegoa haranekoa baino handiagoa zen (1901.ean, beheko aldean —Trapagaranek— 1.776 biztanle; goiko aldean —La Arboleda eta beste auzo batzuk— 5.060 biztanle).

Hala eta guztiz ere, burdingaiaren erauzketa murrizten joan zen neurrian, biztanlegoa, itsasadarraren ezker aldean, meatzal ustiakuntzarekin batera garatzen hasberria zen industria astunera aldatzen hasi zen. 30. eta 40. hamarkadetakoko, goiko aldeko biztanlegoa erabat murriztua geratu zen, eta beheko aldeko herriak, bots, Urtuella, Trapagaran, Abanto-Zierbena eta Barakaldo, jatorriz nekazariak, industri berrietara (labe garaiak, untziolak...) lan egitera joan ziren langileekin handitu ziren.

Gaur egunean, industria mota hauen desagertzea edo birmoldaketarekin geure historiaren garrantzi handiko etapa bat bukatzen da, meatzal herriekin batera, Bizkaiko ekonomi gorakadaren bultzatzailea izandako industria ibarduera baten oroitza pen nagusia izanik.

IBILBIDEA

“Peñas Negras” Ingurugiroaren Interpretarako Zentrotik (I.I.Z.) abiatuz, bere atzetik irtetzen den bidea hartu behar dugu, hiruzpalau minututan bidegurutz batera heltzeko, bertan ezkerreko bidea aukeratuko dugu.

Bidezidor estu batetik zazpi bat minutuz ibili ondoren, Pikwik (edo Picui) meatzal kontzesiora **1**, helduko gara, berau inguratzen duen hesia eta harkai-

tzetako oxidoaren kolore gorriagatik erraz ezagutuko dugularik.

Meategia eskumaldean utzi eta (edo bestela, bertara jeitsi gaitezke hesien artean geratzen den bidetik) zelai zabal batera helduko gara, bertatik, aurrez-aurre, Larraineta auzoa ikusi daiteke- elarik.

Hemen, eskumaldeko muinoetatik gora doan bidezidor bat hartu behar da, etxe txiki batzuen ondotik igaro ondoren



La Arboleda

hamabost minuturen buruan zementozko bide batera helduko gara **2**.

Denbora gutxiko igoera samur baten ondoren La Arboledako hilerria helduko gara **3**; hemendik herrira jeisten den asfaltozko errepide bat irtetzen da. Guk, bide zuri baten zehar (anhidritazkoa) zuzen jarraituko dugu, abel esplotazio baten aurrean amaitu arte **4**, honaino 15 minutu emanaz.

Hemendik, gorantza doan konpondu gabeko bidea jarraitu behar da, San Felicianoren zubia izenez ezagunak diren horma zahar batzuk inguru dugu topo; bere ezkerretara meazulo baten sarrera ikus dezakagu eta beheago Oiola urtegia ageri da. Pista zuria amaitzen den lekutik, 25 minutuko igoera gozoa dugu Mendibil gailurrera heldu arte, bertatik Enkarterrietako zenbait mendi, Pagasarri, Ganekogorta eta abarrek mendi ikuspegiak nabarmentzen dira.

Mendibileko gutunontzia, “ovni” itxurakoa, harkaitz baten gainean kokaturik



Mendibil azpiko meazuloa

dago, Telefonica dorrearen eskumaldean. Hemendik, Barrionuevo eta La Arboleda tartean burututako meatzal ustiakuntzaren aparteko ikuspegi baten, Zuloko sakana, erabat zulatuta, ikus daiteke.

Mendibiletik, Bitarratxu mendira hel daiteke, bai landeetatik zehar (bidea nabarmen asma daiteke), bai Telefonikako instalazioetara doan errepidetik. Edozelan ere, 20 bat minututan tentsio handiko dorre (mendiaren ezaugarria) baten azpian kokatuta dagoen gutunontzira heltzen da. Apur bat aurrerago, erpin geodesiko bat kokatuta dago, bertatik itsasadarreko bi ibar eta bokalearen ikuspegi zabala beha daitekeelarik.

Hemendik Barrionuevara (meatzal auzo tipikoa, etxeetan barrakoiaren antzeko egitura gordetzen baita) aukera bi daude:

- Antzineko zabortegearen ekialdetik eta pinu artean beherantza (aldapa txiki bat igo ondoren) doan bideari jarraitzea.
- Zuloko sakanaren goiko ertzetik doan bidezidorretik; hasieran lauha, jeitsiera gogorragoa bihurtzeko gero. Bide honek, antzineko meatzal gunea eta lakuen ikuspegi ezin hobea erakusten digularik, ur deposito bateraino eramango gaitu eta handik Barrionuevara.

Bigarren bide hau, bere arriskua dela eta ez da komeni ohituak ez dauden pertsonentzat, eta eguraldi zakarra denean inorentzako ere ez.

Hamabost bat minuturen buruan Barrionuevara helduko gara, bertako iturrian (eta garbitokia) apur bat freskatu gaitezkeelarik.

Ondoren, asfaltozko errepidea beste bost minutuz jarraitu behar dugu, Larraineta eta La Arboleda lotzen dituen errepidera heldu arte **5**. Larrainetan, funikularraren irteerak eta helduerak behatzeaz gain, ermitaren arkupean dagoen pintura ikustea interesgarria da, eskualdearen meatzal iragana gogoratziko digularik.

Berriro ere, La Arboledako errepidea hartuz, 20 bat minutuko ibilbide atsegin baten ondoren bertara helduko gara. Behin herrian, iragan hurbileko geratzen diren etxebizitzak ikustea merezi du: zurezko etxeak eleizaren ezkerrean, meatzal sindikatuak, ospitalea...

La Arboledatik, herri hau eta Muzkiz lotzen dituen mendi errepidean zehar, berriro ere, "Peñas Negras" I.I.Z.era zuzenduko gara, bertara, 30 minutuko ibilbide eroso baten ondoren helduko garelarik.

Aukerako ibilbide lez, "Picui"ko zelaira heltzean, iturritik gorantza doan bidezidorra hartuz goiko aldeko paisaia karstikoa bisita daiteke (holako modelaketa geologiko bitxia ikustea gomendagarria da). Karsta zeharkatu ondoren eta askaldegia gunea igaroz, I.I.Z.raino jeitsiko gara.



La Arboleda ingurugiro meatzal hustiagunea



Barrionuevo



170 m. Goibehea: Gutxi gora beherako gehiengo goibehea 120 metrokoa da, altuerarik txikiena La Arboledan (389 m) eta handiena Mendibil gailurrean (562 m) direlarik.



2,10 h. Gutxi gora beherako ordutegia: I.I.Z.tik La Arboledara aipatutako bideak 2 ordu eta 10 minutu irauten du, denbora honi beste 30 minutu gehitu beharko zaizkio abiapuntura (I.I.Z.) itzuli nahi izanez gero.



Zailtasuna: Egoera oneko eta ondo bereizitako aldai eta bideetatik zeharko ibilbide erraz eta eroso. Lehenago aipatutako Bitarratxu eta Barrionuevo arteko aukerako bidea, bere balizko arriskuagaitik, ohitutako pertsonentzako soilik.

ELEMENTU ESANGURATSUAK

Ikuspegiak, paisaiaren interpretazioa, industri arkeologia.



Parkotxa. Ezkerretara Mendibil mendia